anboto

DURANGALDEKO ASTEKARIA
2013ko martxoaren 15a
11. urtea
493. alea
www.anboto.org
TOKIKOM

Kultura

Clownaren inguruko jardunaldiak antolatu dituzte Durangon, lehenengo aldiz > 11

Zilar Asteak migrazioen inguruan hausnartuko du

Durangaldeko hainbat diziplinatako kultur sortzaileek euskaraz eta Zilar Asterako propio sortutako ekintzak biltzen ditu Plateruenaren bueltan sorturiko egitarauak > 12-13

Eguazten eguerdian Otxandiotik sartuko da Korrika Durangaldean > 2

Korrika 18 babesteko egitaraua prestatu dute hainbat herritan

Badator Korrika 18 Durangaldera. Andoainen ekin zion atzo bideari. Eskualdea eguazten eguerdian bisitatuko du. Otxandiora 11:58an heltzea aurreikusi dute. Handik, Urkiola jaitsiko du, eta eskualdeko herrietatik ibiliko da. 17:43ean Mallabian hitzordua jarrita dute, eta handik, Gipuzkoarantz abiatuko da. AEK-k antolatutako ekimenak ikasleak omentzen ditu aurten. Mertxe Mujika AEK-ko koordinatzaileak dioenez, "beti esan izan dugu ikasle barik ez garela ezer".

Durangaldea > 3
Zarea, Durangaldeko euskara batzen duen proiektua martxan

Durangaldea > 3
Akordioa sinatuta, greba bertan behera utzi dute MZ enpresan

Mañaria > 6
Udal arduradunek botikin zerbitzua berreskuratu gura dute

Durango > 4
Geu Be elkartea hamargarren urtemuga prestatzen dabil

Herririk herri

> DURANGALDEA

MERTXE MUJIKA | 1963, Elorrio | AEK-ko koordinatzaile nagusia

"Euskara, elkarbizitzarako gako bat legez ikusten dugu"

Atzo hasi zen Korrika 18 Andoainen. Euskararen alde AEK-k antolatzen duen lasterketak berriro zeharkatuko du Euskal Herria, hilaren 24an Baionan amaitzeko. AEK-ko koordinatzaile nagusia da Mertxe Mujika elorriarra. Azkenengo egun hauek urduri eman ditu, baina pozik dago, hamazortzi hilabeteko lanaren ostean, Korrika martxan dagoelako.

Zer esan nahi du aurtengo Korrikak AEK-rentzat?
AEK momentu on batean harrapatzen du, baina baita kezka bategaz ere: ikasleak erakartzeko behar hori. Korrikak aurten ikasleak omentzen ditu, beti esan izan dugulako gu ikasle barik ez garela ezer. Gure nahia ere bada, Korrika honek emango duen mezua hori izatea eta ikasleak erakartzea.

Ikasleen kopuruan jaitsiera egon da azkenaldian, ezta?
Bai. Ikusten da, duela hiru urtetik hona jaitsiera bat dagoela. Hori bada eskola bere bidea egiten ari delako, gizartea gero eta elebidunagoa delako... Baina ikusten duguna da, azken urteetan krisi mota bi bizi ditugula. Duela hiru-lau urte, krisiaren zantzuak agertzen hasi zirenean, guk igarri genuen gorakada bat zegoela, jendea langabezian egotera eta dirua edukitzera, formazioan inbertitu zuelako. Baina, krisia areagotu egin da. Jaurlaritzatik etorritako ikasleen dirulaguntzak kendu egin zituzten. Bestalde, azkenengo urteetan nolabaiteko prestigio falta ere egon da. Gehiago zabaldu da ideia hau: "Beste hizkuntza batzuk ikasiko ditut; kanpora joateko, lana topatzeko...".

'Eman euskara elkarri' da aurtengo leloa. Zergatik?
Ikusten genuen euskal gizartean fase berri batera abiatzen ari ginela. Elkarbizitza asko komentatzen zen, eta uste genuen fase horretan ere oso garrantzitsua zela euskaratik egitea. Hortik etorri zen *Eman euskara elkarri*. Azken finean, euskara euskal herritarron hizkuntza da; berba egiteko, komunikatzeko... Eta elkarbizitzarako, gainera, gako bat legez ikusten dugu. Bakoitzak beretik, baina denok euskara elkarri emateko mezu hori zabaltzen gabiltza.

> *"Korrikak aurten ikasleak omentzen ditu, beti esan izan dugulako gu ikasle barik ez garela ezer"*

Zelan bizitzen duzu Korrika, maila pertsonalean?
Niretzako, Korrikak badauzka hiru puntu hunkitzen nautenak. Bat martxan ipintzen denean. Momentu oso magiko hori non lekukoa, bi urtean gordeta dagoena, berriro ateratzen duzun eta sartzen duzu barruan doan mezua, eta badoa... Gero, Elorrion zelan sartzen den eta jendea ikustea. Eta, azkenik, zalantza barik, amaiera. Gure irakasleen lan eskerga eta hainbat eta hainbat herritarrek egiten duten lana eskertu besterik ezin dut egin. Bestela, hau ez genuke aurrera aterako.

Oso ekimen hunkigarria izan ohi da Korrika...
Harrigarria da zenbat malko ikusten den lasterketan zehar. Sarritan esaten dugu Korrikaren giltzarria ere hor dagoela, emozioa sortzen duelako. Urduritasun hori, badator badator...

KORRIKAREN ORDUTEGIA ETA EGITARAUA

Otxandio - 11:58
Mañaria - 13:34
Izurtza - 14:12
Durango - 14:24
Iurreta - 14:52
Durango - 15:01
Abadiño - 15:08
Atxondo - 15:46
Elorrio - 16:02
Berriz - 16:53
Zaldibar - 17:19
Mallabia - 17:43

BERRIZ

Martxoaren 15ean:
- 19:00etan, Poteoa Olakueta plazan hasita
- 21:00etan Luntxa Gaztetxean
- 22:30ean SeiUrteren kontzertua

Martxoaren 16an:
- 17:00etan Umeentzako jolasak, Olakuetan

Martxoaren 20an:
- 15:00etan Korrika txikia BBKn hasita
- 16:45ean KORRIKA, Elorriotik Zaldibarrera
- 17:30ean Jai giroa Olakueta plazan: umeentzako jolasak, musika...

DURANGO

Martxoaren 17an:
- 18:00etan "Spaceko zarama" San Agustin kulturgunean

Martxoaren 20an:
- 12:30ean Trikitilariak Durangoko kaleak alaitzen eta ondoren, triki-poteoa
- 14:20ean KORRIKA

ZALDIBAR

Martxoaren 20an:
- Egun osoan "Korrika" argazki erakusketa
- 11:30-12:30 Korrika txikia
- 16:15ean Txokolatada plazan
- 17:20ean KORRIKA
- 18:15ean Luntxa plazan eta triki-poteoa

ELORRIO

Martxoaren 15ean:
- 15:00etan Korrika txikia eta txokolatada

Martxoaren 20an:
- 16:00etan KORRIKA
- Ondoren, "Lore power" ikuskizuna plazan

IURRETA

Martxoaren 15ean:
- 20:00etan Kantulagun "Oxabi" taldeagaz

Martxoaren 20an:
- 11:00etan Murala egitea
- 13:00etan Montoian, txistorra, musika, argazki erakusketa
- 14:45ean KORRIKA

MAÑARIA

Martxoaren 20an:
- 10:30ean Korrika txikia eta eskolako umeen bazkaria plazan
- 13:30ean KORRIKA, ostean, frontoian, musika eta txokolatada

MALLABIA

Martxoaren 15ean:
- 19:00etan aurkezpen soziala Zurrutokin

Martxoaren17an:
- 16:30ean Mus txapelketa Herriko Tabernan

Martxoaren 20an:
- 15:00etan Korrika txikia
- 19:00etan Triki-poteoa
- 22:30ean afaria Izar Gorri elkartean

*** 24an, Baionarako autobusa. Izena emateko, jo Plateruenera edo Abarrakera**

Zarea, Durangaldeko euskara batu gura duen webgunea

Amankomunazgoak eta teknikarien batzordeak sustatu dute Zarea

Teknikari bi, eguaztenean, webgunearen inguruko azalpenak ematen.

> MARKEL ONAINDIA

Eguaztenean Durangoko San Agustin Kultur Gunean egindako ekitaldian aurkeztu zuten Zarea. Amankomunazgoko euskara zerbitzuak eta euskara teknikarien batzorde teknikoak sustatu dute webgune hau, eta euskararen inguruko tresna edo plataforma digital bat izango da. Durangaldeko euskara eta horregaz lotutako ekintzak batuko dituzte webgunean. Batzeko ideia horretatik eman diote izena; *zarea*, baserrietan erabili ohi den saskia da. Aurkezpenean teknikariek, ordezkari politikoek eta euskararen arloan beharrean dabiltzan herritar batzuek parte hartu zuten. Felix Arkarazo aktoreak gidatu zuen ekitaldia.

> Batzeko ideia horretatik eman diote izena; 'zarea', baserrietan erabili ohi den saskia da

Informazioa jaso eta bidali

Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidenteak eta teknikariek hartu zuten berba proiektuaren nondik norakoak azaltzeko. Zarrabeitiak adierazi zuen, eskualderako tresna baliagarria izan gura duela Zareak. Euskararen inguruko planak, euskara ikasteagatiko dirulaguntzak, aurrekontuak, ondare toponimikoa, agenda, albisteak... Hainbat atalez osatuta egongo da ataria. Gainera, informazioa herririk herri sailkatuta eskuratu ahal izango da. Bertara sartzeko, *www.durangaldeaeuskaraz.eu* helbidera jo beharko dute interesdunek. Informazioa jaso bakarrik ez, bidaltzea ere posible izango dela azaldu zuten, *euskera.mdurango@bizkaia.org* helbidera idatzita. Dagoeneko,

Akordioa sinatuta, greba bertan behera utzi dute Mendiguren y Zarrauan

Enpresaren zuzendaritzak langileen eskaera guztiak onartu dituela diote sindikatuek

> JONE GUENETXEA

Eguaztenean lanera itzuli dira Mendiguren y Zarraua enpresak Abadiñon eta Berrizen dituen lantegietako beharginak. Martxoaren 4tik greban egon ondoren, martitzen gauean sinatu zuten akordioa zuzendaritzagaz. LABek dioenez, "enpresa taldeko arduradun nagusi bi etorri ziren negoziatzera. Hainbat enpresa garrantzitsu urduritzen hasiak ziren, adibidez Mercedes, beraiei ere laster eragingo baitzien Mendiguren y Zarrauako grebak". ELAk azaldu duenez, "inposaketa eta hordagoetara jokatu du enpresak, baina gero, mahaian eseri eta negoziatu egin dute".

Eusko Jaurlaritzak enpresaren eta grebalarien artean bitartekari egin du. Martitzenean, Bilbon, batzarrean batu ziren enpresako ordezkariak greba komiteko zortzi kiderekin. Zuzendaritzak eskaera guztiak onartu zituela diote sindikatuek.

> Eusko Jaurlaritzak enpresaren eta grebalarien artean bitartekari egin du

Langileen aldarrikapenak

Greba bertan behera uzteko, langileek hiru eskaera jarri dituzte mahai gainean: soldatak %15 jaisteko erabakia bertan behera uztea, Espaniako lan erreformaren aurrean langileen eskubideak eta lan baldintzak "blindatuko" dituen hitzarmen kolektiboa negoziatzea, eta lanpostuen bermea onartzea.

> MALLABIA

Kultur Hamabostaldirako egitaraua prestatzen

Udalak herriko elkarteekin batera antolatuko du Kultur Hamabostaldia, maiatzaren 6tik 19ra

> J.G.

Kultur Hamabostaldiko egitaraua prestatzen dihardute udalak eta herriko elkarteek. Eguaztenean, herri batzarrean batu ziren elkarteen proposamenak jaso eta egitaraua zehazten hasteko. Hamabostaldia maiatzaren 6tik 19ra izango dela aurreratu dute antolatzaileek. Egitarauko ekintza batzuk finkatu dituzte dagoeneko. Maiatzaren 19an Nekazaritza eta Eskulangintza Azokagaz amaituko da egitaraua. Baserriko produktuen, loreen eta euskal eskulanen erakusketa izango da ikusgai.

Argazki lehiaketa

Azoka egunean, II. Argazki Digitalen lehiaketaren saria banatuko da. *Beti zeozer eitten Mallabixen* da gaia, eta lanak apirilaren 19ra arte aurkeztu daitezke kultur etxean.

> ATXONDO

Durangaldeko Txistulari Eguna ospatuko dute etzi

Goizean kalejiran irtengo dira, eta 13:00etan kontzertua eskainiko dute San Pedro elizan

> JOSEBA DERTEANO

Jaizale Durangaldeko Txistulariak elkarteak, Durangaldeko Txistulari Egunaren 58. aldia prestatu du domekarako. Egunari hasiera emateko, 10:30ean kalejira egingo dute Apatamonasterion, Santiagon, Axpen eta Arrazolan zehar. Ondoren, 13:00 inguruan, San Pedro elizan batuko dira kontzertu bat eskaintzeko, Tere Eguzkiza aurkezle dutela. Kontzertua amaitzerakoan, Atxondoko dantzariek Erregelak dantzatuko dituzte eliza aurrean. Ekimenean honako elkarte hauek parte hartuko dute: Jaizale Durangaldeko txistulari elkarteak, Elorrioko Balentin Berriotxoa koruak, Durangaldeko metal taldeak eta dantzariek.

Aurten, bosgarren bider hartuko du Atxondok Durangaldeko Txistulari Eguna: 1967an eta 1987an Apatamonasterion egin zen; 1970ean Axpen eta 2000. urtean Atxondon.

> DURANGO

Hamargarren urtemuga ospatzen hasi da Geu Be

Kartel eta laburmetrai lehiaketak egingo dituzte, besteak beste

Geu Be elkarteko gazteak, gurasoak eta begiraleak, aurkezpen batean.

> MARKEL ONAINDIA

Hamar urte dira Geu Be elkartea jaio zenetik. Hainbat ezindu psikikoren gurasoak batzen hasi ziren, euren beharrizanei aurre egiteko soluzio bila. Batez ere, gazteen aisialdi denbora betetzeko elkargune bat sortu gura zuten. Bolondresen laguntzagaz eman zituzten lehenengo pausoak, eta Durangalde mailako sarea osatzen joan zen. Hamar urte igaro dira dagoeneko, eta urtemuga hori ospatzeko ekitaldiak hasi dituzte. Kartel eta laburmetrai lehiaketak egingo dituzte, besteak beste. Ezgaitasunen inguruan hausnartzea da helburua, azaldu dutenez.

Kartel lehiaketarako apirilaren 9a ipini dute epemuga; laburmetraietarako, apirilaren 15a. Geu Beren egoitzan, Kurutziagako Garai jauregian, aurkeztu behar dira lanak. Karteletan irabazle suertatzen denak 200 euro jasoko ditu, eta laburmetrai onenarenak 250.

Berez, jaialdi nagusia maiatzean egingo dutela esan dute elkarteko ordezkariek. Asteburu bikoa izango da; bat kirolari zuzendua, eta bestea, kulturari. Integrazioaren alde lanean jarraitzeak merezi duela diote Geu Bekoek, urtemugako ekintzen helburuez berba egiterakoan. "Ezgaitasuna duten pertsonek gizarte estamentu eta arlo guztietan parte hartzeko eskubidea dutela adierazteko aprobetxatu gura dugu".

Tren geltokiko gune komertziala hamahiru dendarik bisitatu dute

Merkataritza gunea, lehenengo, eskualdeko merkatariei erakustea gura du Dendak Baik

> M. O.

Dendak Bai elkarteak prentsa oharra bidali du, hainbat merkatari tren geltoki berriko gune komertziala bisitatzen egon direla azaltzeko. Obrak hastean, Dendak Bai elkarteak kezka agertu zuen guneak edukiko lukeen izaerari buruz. Horregatik, Eusko Trenbide Sareak eta merkatariek hitzartu zuten bisita hau egitea; gunea lehenengo eskualdeko merkatariei erakustea zuten helburu, "inbertsio lokala kate komertzial handien aurretik jartzeko asmoagaz". Hamahiru merkatarik agertu zuten gunearen obrak ikusteko interesa, eta dagoeneko egin dute bisita.

Tren geltoki berria zabalik dago, baina oraindik hainbat lan dauzkate egiteko. Horietako bat da gune komertzialarena. Hor egongo ei da, gainera, geltokirako sarrera nagusia.

> Obrak hastean, Dendak Bai elkarteak kezka agertu zuen guneak edukiko lukeen izaerari buruz

Bernabeitiko tunela zabalik

Trenbidea ere guztiz lurperatu barik dago. Durango azpitik zeharkatzen du, baina Iurretatik Zornotzarako tartean obrak egiten dabiltza oraindino. Eusko Trenbide Sareak informatu duenez, Bernabeitiko tunela zabaldu berri dute. Tunel horregaz, 47 metro laburragoa da tartea. Ibilbidea %90ean amaituta dagoela dio ETSk eta, eraldaketa osoagaz, trenek abiadura handiagoa hartuko dute. Orduko 60 kilometroko abiaduran doaz trenak, eta 90ekora helduko dira. Bidaia laburtuko da, beraz.

> Tren geltoki berria zabalik dago, baina oraindik hainbat lan dauzkate egiteko

> IURRETA

Udaleku ibiltari eta finkoak antolatu ditu Kimuak elkarteak

Zortzi urtetik hamazazpira arteko gazteei zuzendutako eskaintza da

> AITZIBER BASAURI

Kimuak astialdi taldeak prest du aurtengo udalekuen eskaintza. "Sorpresaz" betetako egitaraua osotu dute, gainera, elkarteak bost urte bete dituela-eta: "Efemeride hau, ospakizunerako den arren, hausnarketarako ere baliatu dugu, akatsetatik ikasi eta proiektua hobetze aldera".

Euskararen sustapena, ingurumenarekiko errespetua, talde lana, eta, hezkidetza eta kulturartekotasuna ardatz hartuta, hiru udaleku eratu dituzte.

Bost urte bete ditu aurten Kimuak elkarteak eta hori aprobetxatuta, "sorpresaz" betetako egitarua osotu dute. Kimuak

Uztaileko lehenengo astean, astebeteko udaleku finkoak eratu dituzte Tertangan, 8-10 urteko umeentzat. Ostera, 11-14 urteko gaztetxoentzat hamar eguneko egonaldia antolatu dute Pagoetako basoetan, eta Gipuzkoako kostaldean; gainera, sei eguneko udaleku ibiltari bat ere egingo dute.

Bizkaiko kostaldean zehar udaleku ibiltaria prestatu du Kimuakek 15-17 urteko gazteentzat. Iaz legez, elikagai ekologikoak erabiliko dituzte udalekuetan.

> Udaberriko tailerrak ere antolatu ditu Kimuakek apirilaren 2, 3, 4 eta 5erako

Ibarretxe kultur etxean eman daiteke izena; baita 688 698 919 telefonoan eta *kimuak@kimuak-elkartea.com* helbidean ere.

Bestalde, apirilaren 2, 3, 4, eta 5erako udaberriko tailerrak prestatu ditu Kimuakek. Kultur etxean izango dira, 09:30etik 13:30era. Parte hartzeko, hamar euro ordaindu behar da.

> ZALDIBAR

Batzarra, aurrekontu proposamena aurkezteko

> ITSASO ESTEBAN

2013ko udal aurrekontuaren proposamena zaldibartarrei aurkezteko herri batzarra deitu du Bilduko udal gobernu taldeak, martxoaren 20rako. Liburutegi zaharrean egingo dute batzarra, 19:00etan.

Aurtengo kontuei dagokienez gobernu taldeak egin duen hausnarketa eta proposamena aurkezteaz gainera, udalaren egoera ekonomikoari buruzko informazioa ere emango diete gobernu taldeko ordezkariek bertaratzen diren herritarrei.

Besteak beste, urte amaieran udalak zabalduriko inkestari erantzunez herritarrek egindako ekarpenen artean zeintzuk barneratu dituzten aurrekontu proposamenean azalduko dute gobernu taldekoek: aurrekontuari buruz 160 zaldibartarren ekarpenak jaso zituzten.

BAQUÉ
·Café·

Hemen, Kafeari Baqué esaten diogu

www.baque.com

> OTXANDIO

Jaiak antolatzen parte hartzeko deia egin diete herritarrei

> J.D.

Uztailean Santamaña jaiak ospatuko dituztela-eta, urtero legez, jaiok antolatzeari hilabete batzuk lehenago ekingo dio jai batzordeak. Lehenengo batzarra martxoaren 26ko martitzenean egingo dute, 20:00etan, udaletxean.

Jai batzordeak martxoaren 26ko martitzenean egingo du lehen batzarra, 20:00etan, udaletxean

Batzar horietan, herriko jai nagusiak diseinatu eta hainbat ekitaldi antolatzen dituzte: danborrada, kalejirak, txapelketak, dantzak, kontzertuak, umeen eguna, antzerkiak edota pilota partiduak, beste hainbat eta hainbat ekintzaren artean. Horregatik, jaien gaineko bere iritzia emateko, ekarpenen bat egiteko eta antolaketa orokorrean parte hartzeko gogoa duten herritarrei lehenengo batzar horretara joateko deia egin die jai batzordeak.

> ABADIÑO

Martxan da herritarrek parte hartzeko plataforma

> I.E.

Traña-Matienako Errota kultur etxean aurkeztuko dute, astelehenean, 19:00etan, herritarrek parte hartzeko udalak zabalduko duen Interneteko plataforma berria: *www.abadinopartehartze.participacionvirtual.com* helbidean atondu dute atari birtuala.

Gunearen helburua da, abadiñarrei herriari eragiten dioten gaiez eztabaidatzeko eta ekarpenak egiteko aukera eskaintzea, udaleko gobernu taldeak azaldu duenez: udalaren eta herritarren arteko komunikazioa erraztea.

Berorren bitartez, galderak eta proposamenak egiteko aukera izango dute herritarrek, eta udaleko ordezkariek zein teknikariek erantzun egingo diete. Gainera, herritarrek argazkiak zein 3Dko mapak baliatu ahal izango dituzte, besteak beste, udalari euren eskariak egiteko. Herria eraikitzeko ardura, udalarena bakarrik ez, herritarrena ere badela dio gobernu taldeak: "Abadiño denon artean eraiki gura dugu", azaldu dute Interneteko gune berria aurkezteko.

Abadiñoko Udalak lokala utzi du janaria gordetzeko eta banatzeko.

50 familiak jaso dute janari bankuaren laguntza 2012an

Guraso bakarreko familiak eta bikote gazteak dira hartzaile nagusiak

> ITSASO ESTEBAN

Krisiarekin hazi egin da elikagaien laguntza-hartzaileen kopurua. Herriko 50 familiak jaso dute janari bankuaren laguntza. Javier Crespo Gizarte Ekintza arloko zinegotziak azaldu duenez, guraso bakarreko familiak eta lanik barik geratu diren bikote gazteak dira janari bankuaren hartzaile nagusiak.

Guztira, 10.000 kilo janari banatu zituzten 2012. urtean Abadiñoko familien artean.

Janari gehiena Europako Janari Bankutik dator; iaz, baina, Bizkaiko Janari Bankuak ere supermerkatuetan bildutako 793,60 kilo janari banatu zituen Abadiñon. Horri gehitu behar zaizkio Matienako IGEak abenduan antolatutako elkartasun azoka txikian bildutako 700 kilo janari eta 40 kilo higiene pertsonalerako produktu. Eroskik ere egin zuen bere ekarpena: 90 euro eman zituen asmo bererako. Abadiñoko herritarrek, bestalde, arropak eta jostailuak eman dituzte. Janari hori boluntarioek gordetzen dute udalaren lokal batean. Udalak 2.200 euroko laguntza eman zuen iaz janari horien garraioa ordaintzeko.

> MAÑARIA

Jaio: "Botikina, oinarrizko zerbitzua dela uste dugu"

Udalak botikina berreskuratuko du, eta une hauetan, Osasun Sailagaz tramitazioetan dabil

> M. O.

Mañariko Udala herrian botikina ipintzeko tramiteak egiten dabil. Aurrekontu parte-hartzaileen bidez sortutako ideia bat da botikinarena; lehen ere bazegoen zerbitzu bat da, baina duela urte pare bat kendu egin zuten. Udalak zerbitzua berreskuratuko du. Oraingo liburutegian ipintzeko asmoa dauka, baina lehenik liburutegi berria inauguratuko du. "Botikina oinarrizko zerbitzua dela uste dugu", esan du Endika Jaio alkateak. 800 biztanletik beherako herrietan zabaldu ahal dira botikinak.

800 biztanletik beherako herrietan zabaldu ahal dira botikinak

Une honetan, udala Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailagaz tramitazioetan dabil. Baldintzak bete direla egiaztatzean, lehiaketa bat egongo da farmaziei begira, botikina nork kudeatuko duen zehazteko.

> IZURTZA

Herriko tabernari errenta jaistea onartu dute batzarrean

Krisiagatik ezin zieten ordainketei aurre egin

> JOSEBA DERTEANO

Otsaileko udalbatzarrak hala onartuta, Herriko Taberna kudeatzen dutenekin udalak orain arte zuen kontratua atzera bota eta berri bat egin diote, zenbateko baxuagoagaz. Krisiak eraginda, ezin dietela ordainketei aurre egin da horretarako arrazoia. Tabernako jabeek zor denak likidatuta dituzte. Gobernu Taldeak alde bozkatu zuen, eta EAJ abstenitu egin zen. Erabaki horrek udalak dituen gainerako kontratuekin tolerante jokatzera behartzen duela esan zuen EAJk. Gainera, herrian %14,5eko langabezia dagoela eta ordenantza fiskaletan langabetuei laguntzeko modifikazioak aztertzeko eskatu zuen. Luis Ballarin alkateak dio udala ahal duen neurrian herritarrei laguntzeko prest dagoela, beren egoera azalzeko eta justifikatzeko udaletxera etortzen badira.

Bestalde, azken boladan Amankomunazgoko zabor bilketa zerbitzua dela-eta, herritarren kexa asko eta asko jaso izan dituzte, eta alternatibak aztertzeko prest daudela adierazi du alkateak.

> GARAI

Lantziegoko herriagaz senidetza hitzarmena sinatuko dute bihar

Lantziegotik hainbat herritar etorriko dira Garaira, eta egunpasa egingo dute guztiek batera

> MARKEL ONAINDIA

Garai eta Lantziegoko herrien arteko lotura sendoagoa izango da bihartik aurrera. Herri bietako alkateek senidetza hitzarmena sinatuko dute bihar eguerdian, duela 25 urtetik gora dantza taldeen bitartez hasitako hartu-emana ofizial bihurtu guran. Lantziegotik hainbat herritar etorriko dira Garaira bisitan, eta egunpasa egingo dute guztiek batera.

Goizeko 11:00 aldera helduko dira lantziegarrak Garaira. Lehenengo eta behin, hamaiketakoa egingo dute, eta eguraldia ona bada, Etxeitako artea ikustera joango dira gero. Eguerdian, ekitaldia egingo dute frontoiaren ondoan. Bertan, lantziegarrek mahasti landare bi sartuko dituzte, eta garaitarrek arte bat ere bai. Oroigarri bat ipiniko dute, eta alkate biek idatzi bat sinatuko dute, Gontzal Sarrigoitiak aurreratu duenez. Gainera, han batzen diren herritarrek ere edukiko ei dute sinatzeko aukera.

Frontoiaren ondoan, lantziegarrek mahasti bi sartuko dituzte, eta garaitarrek arte bat ere bai

100 lagun bazkaltzen

Ekitaldiaren ostean, bazkaria egingo dute frontoian; babajana, hain zuzen ere. Duela aste bi ipini zituzten salgai txartelak, eta Sarrigoitiak adierazi du 100 lagun inguru batuko direla. Bazkalostean, erromeriagaz jarraituko du ospakizunak.

> DURANGALDEA ASTEON

Maskulinitate berriak berbagai, datorren eguenean

Bilboko Poper Txuriak berdintasunaren aldeko gizon taldeak erakusketa ipini du Elorrioko kultur etxean, eta datorren eguenean, martxoak 21, berbaldia eskainiko du *Gizonak eta berdintasuna* izenburupean. 19:30ean hasiko dute hitzaldia, kultur etxeko areto nagusian.

Diafreoterapia ikastaroan, emozioak lantzeko aukera

Berrizko Gure Izarrak emakume elkarteak Diafreoterapia tailerra antolatu du. Gorputzaren, pentsamenduaren eta emozioen arteko oreka lortzeko teknika da diafreoterapia, eta ariketen bidez ikasiko dute. Eguaztenetan emango dute tailerra, 18:30ean. Informazio gehiago, 665 720 663 telefonoan.

Ume eta gaztetxoentzako ipuin lehiaketa

Abadiñon, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik DBH 4ra arteko ikasleentzako ipuin lehiaketa martxan da. Maiatzaren 18ra arte Errota kultur etxean eta Udal Mediatekan aurkeztu daitezke lanak. Eskola umeen artean idazteko eta istorioak kontatzeko zaletasuna bultzatu gura dute ekimenagaz.

Baserri-paisaien balioak agerian ipintzeko ekintzak proposatzeko batzarra

Martitzenean, martxoak 19, batzarra egingo dute Urkiola Landa Garapenaren egoitzan, Berrizen, baserriak zaintzeko eta baserri-paisaien balioa bultzatzeko ekintzak pentsatzeko. Proposamenak batu eta eskualdeko administrazioei eta eragile sozial eta ekonomikoei aurkeztuko dizkiete. 19:00etan hasiko da batzarra. Eztabaidan parte hartzea konfirmatu egin behar da *paisaia.atl@paisaia.com* helbidera idatzita.

> ELORRIO

Gazteen alokairua finantzatuko dute aurten, lehenengo bider

Gazte bakoitzak alokairuaren %50 jasoko du, gehienez, dirulaguntza legez

> MARKEL ONAINDIA

Gazteei, etxeko alokairua ordaintzeko dirulaguntzak ematea onartu du udalak. Finantziazio hori lehenengo bider garatuko dute Elorrion, azaldu dutenez. 9.000 euroko poltsa gorde du udalak horretarako, eta eskatzaileen arabera kopurua handituko dutela esan dute udal ordezkariek. Gazte bakoitzak alokairuaren %50 jasoko du gehienez, eta 250 euroko muga ere ipini dute. 18 eta 35 urte bitartekoek eskatu ahal izango dute laguntza urrian, eta alokairuko etxe horretan erroldatuta egon beharko dute. Laguntzetatik kanpo geratuko dira 750 euro baino gehiagoko alokairuak, eta 28.000 euroko diru-sarrerak dauzkaten gazteak ere bai. Ana Otadui alkateak esan du, udalak gazteen emantzipazio prozesua bultzatu gura duela neurriagaz: "Are gehiago sasoi hauetan, gazteria krisiak gehien kaltetuenetako kolektiboa da-eta".

Gazteek alokairua ordaintzeko dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte.

> Laguntzetatik kanpo geratuko dira 750 euro baino gehiagoko alokairuak

Bildu ez dago ados EAJgaz, Idoia Buruagaren esanetan: "Atsekabetuta gaude oraingoan ere, dirulaguntza hau, arazoa benetan konpontzeko beharrean, bere alderdiko propagandarako baino ez darabilelako". Bilduk, besteak beste, ez du ulertzen kuota bakarreko ordainketa: "Laguntza behar duten gazteek hilero beharko dute". 750 euroko alokairu mugari ere gehiegizko deritzo, Elorrion alokairu hori "luxuzkoa" dela uste duelako.

PPk ekimenaren alde egin du. Carlos Garciak esan du gauza gehiago egin ahal direla, baina neurri hau urrats positiboa dela.

> BERRIZ

Martitzeneko merkatua lekuz aldatu dute, probalekura

Autopista azpiko aparkalekuan baino baldintza hobeak daudela azaldu dute udal ordezkariek

> AMAIA UGALDE

Pasa den martitzenean, merkatuak leku berria hartu du Berrizen. Oraindik aurrera, autopista azpiko aparkalekuan barik, probalekuan ipiniko dituzte postuak. Merkatua herriaren erdialdean egongo dela eta errepidea zeharkatu beharrik ez dela egongo nabarmendu dute, ohar bidez, udal ordezkariek: "Segurtasun handiagoa egongo da, eta erosketak egitea erosoagoa izango da". Probalekuak aterpea daukanez, eguraldiak ere gutxiago eragingo dio merkatuari.

Lekuz aldatuta, martitzenetan 06:30etik 15:00era okupatzen zuen aparkalekua libre geratuko dela nabarmendu dute udal ordezkariek. Horrez gainera, merkatuaren osasunerako ona izango dela uste dute: "leku berriagaz, berriztarren eta merkatuko saltzaileen arteko sinergiak bultzatuko dira".

Gaur egun, sei salmenta postu finko ditu martitzeneko merkatuak. Gozokiak, hestebeteak, fruituak eta arropa eta oihalek eskuragai jarraituko dute leku berrian.

Martitzeneko merkatua 2001etik egon da autopista azpiko aparkalekuan. Orain arteko salmenta ordutegia mantendu egingo dute, eta 08:00etatik 13:30era edukiko dituzte postuak zabalik.

Dirulaguntzen epeak malgutuko dituzte

> A.U.

Ordenantzak jasotzen zuenez, Berrizko kultur elkarteek udalean dirulaguntzen justifikazioak aurkezteko epea urtarrilaren 31n amaitu zen. Epe hori laburregia dela eta elkarteak denboraz oso justu ibiltzen direla iritzita, malgutu egingo dute halako dokumentuak aurkezteko epea.

Oraindik aurrera, beraz, malgu jokatu ahal izango da, eta unean-unean erabakiko dira aurkezpen epeak. Orain arte ordenantzetan urtarrilaren 31 jartzen bazuen ere, nahiko jarrera malgua eduki dute kultur elkarteen dirulaguntzei dagokionez. Horregatik, ordenantzan epe zehatz hori ezartzen duen artikulua kentzea erabaki dute osoko bilkuran.

GALLASTEGI
gallastegiharategiak@euskalnet.net
1955 ean sortua
Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR
EUSKO LABEL
Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada
Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

hitz liburudenda
artekalea 14, durango 946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Berbaz

TRINIDAD VICENTE TORRADO | Soziologoa eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea | Bilbotarra da

“Emakume eta gizonen arteko desberdintasun egoerak migrazioan ere eragiten du”

Migrazioei buruz berba egiterakoan, emakumeen errealitatea gutxitan aztertu dela adierazi du Trinidad Vicente soziologoak. Durangora etorri da, arrazakeriaren kontrako astea dela-eta hitzaldia ematera. Emakume etorkin bakoitzaren atzean mundu bat dagoela azaldu du

> AMAIA UGALDE

Atzean utzitakoa, migrazioaren helburua, jatorrizko herrialdea, egoera pertsonala... Pertsona migratzaile bakoitzaren motxilan oso gauza desberdinak daude. Etorkina hitza entzun eta lan bila datorren gizonaren irudia etorriko zaio askori burura. Migrazioei buruzko ikerketei generoaren ikuspegia ematea garrantzitsua da Trinidad Vicente Deustuko irakaslearen ustez.

Badago emakume migratzaileen profilik?

Ezin da orokortu. Gauza asko hartu behar dira kontuan: nazionalitatea, klasea... jatorrizko lekuan izan dituzten baldintzak eta heldu diren lekukoak kontuan hartu behar dira. Gauza asko edukiko dituzte komunean, baita bertoko emakumeekin ere. Azken finean, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun egoerak migrazioan ere eragiten du. Dena dela, bakoitzak bere historia dakar berekin, eta ezin dira egoera guztiak homogeneizatu.

> *“Geroago eta emakume gehiagok migratzen du bakarrik, baina ez da euren egoera asko aztertu; galdera asko egitea falta zaigu oraindik”*

> *“Zergatik etorri diren eta zer lortu duten galdetuz gero, uste baino erantzun ezberdinagoak izango genituzke”*

Gizonen eta emakumeen migrazioetan desberdintasunak daude?

Bai. Esperientziak desberdinak izaten dira, eta migrazioak etxeetan daukan inpaktua ere bai. Aukera berdinak ere ez dauzkagu, politika migratorioek euren selekzioa egiten dute. Pertsona bakoitzak azkenean bere testuingurua dauka. Lan arloan, orain pentsa daiteke gizon etorkinei krisiak gehiago eragin diela. Gizarte osoari eragin dio, baina askotan aipatzen da eraikuntza sektorea, eta hori gizonen arloa izaten da. Edozelan ere, ez dugu ahaztu behar etxeko lanen eta zaintzaren sektoreak oso prekarioak direla, eta emakume etorkin askok hor topatzen dute lan irteera.

Migrazioen gaineko ikerketetan emakumeen errealitatea gutxi landu dela diozu.

Bai. Etorkinei buruz berba egiterakoan, izan dugun irudia gizonarena da, bakarrik etorri den gizona, lan bila, eta gero familia ekartzen duena. Ideia hori nahiko barneratuta daukagula uste dut, eta mundu akademikoan ere hori eduki dugula; ez dugu azterketarik egin emakume etorkinen egoera ezagutzeko. Dakiguna da, geroago eta emakume gehiago etortzen dela bakarrik. Galdera asko egitea falta zaigu oraindik.

Emakume etorkin askok zaintzan eta etxeko lanetan behar egiten dutela azaldu duzu. Iaz etxeko langileen legea aldatu zen. Egoera hobetu dela esango zenuke?

Lehenengo nabarmendu gurako nukeena zera da, lan arlo horretan sartzeak ez daukala zerikusirik euren formazio mailagaz; horretan lan egiten dute, arlo horretan beharra dagoelako eta lan nitxoak direlako. Orain arte ez zen kontraturik egin behar, eta egoera hobetu egin da; lan istripuen aitortza ere badago, esate baterako. Dena dela, lan prekarioak izaten jarraitzen dute, eta horri buelta emateko aldaketa sozialak egon beharko lirateke. Instituzioak gehiago inplikatu beharko lirateke zaintza lanetan. Alzheimerra duen gaixo batek, esaterako, egun osoko zaintza behar badu, kasu horretan soldata duina ordaintzea hiru langileren soldata ordaintzearen parekoa izango litzateke, eta familiek ezin dute hori egin. Hori horrela izateak ez du egoera justifikatzen: instituzioak gehiago inplikatu beharko lirateke.

Euren migrazio proiektuan, esperotako fruituak jasotzen dituzte?

Zergatik etorri diren eta zer lortu duten galdetuz gero, uste baino erantzun ezberdinagoak izango genituzke. Batzuk ikastera etorriko dira, beste batzuk bikotekidearengana, besteak genero indarkeria kasuetatik ihesi, asko seme-alabak utzita euren migrazio proiektuagaz... Denek beharko dute lan merkatuan sartzea, bizitza maila bat izateko. Asko eragingo du askatasun graduak, etxera bueltatu edo herrialdez aldatzeko askatasunak... Eta maletan daroazunak; formazio maila batek agian ez dizu lagunduko lan bat topatzen, baina egoera batzuei aurre egiten lagundu ahal dizu. Galderak egiten hasiko bagina, errealitate asko ikusiko genituzke.

O!

GAURSAN
HITZEMATEN DUGU
ZURE AUTOAZ HARRO EGONGO ZARELA

Andonik esana

RENAULT GRAND SCÉNIC DYNAMIQUE
1.5 dCi 7 eserleku
13.800€*

RENAULT OCASIÓN

EGON ZAITEZ HARRO ZURE AUTOAZ
*PSPa transferentzia-gastuak barne. Izakinak agortu arte. Eskaintzak ere 1.000 €-ko deskontua hartzen du barne, RCI Banque-rekin gutxienez 4.000 euro finantzatzen badituzu. Baliteke irudian ageri den bertsioa bat ez etortzea eskaintzen den bertsioarekin.

Renault gomendatu elf

RENAULT

GAURSA
ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. ON DIEGO LOPEZ HAROKO KALE NAGUSIA, 65. TEL. 94 441 74 50. BILBO
LETXUNBORRO HIRIBIDEA, 89. TEL. 94 363 91 22. IRUN. OTAOLA HIRIBIDEA, 22. TEL. 94 382 09 74. EIBAR
www.gaursaautoak.com

BILBO BERRI
JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU
www.bilboberri.com

Iritzia

> GUTUNAK gutuna@anboto.org eguazteneko 17:00ak arteko epea

Non hago? Zer larretan... udaleko auzo kontseilua?

Ia legegintzaldi erdia egin dugu eta, hala ere, ez dago inolako berririk udalaren organo aholkularia den Auzo Kontseiluari buruz.

Hauteskundeak pasa eta 2011ko irailean, auzo alkate berriak izendatu ziren. Ordutik hona, Auzo Kontseiluaren deialdi bakarra egin da, nahiz eta ordenantzak esaten duen hiru hilabetetik behin batu behar dela.

Gobernu taldeak dio, ez dagoela gairik tratatzeko, eta argudio ziztrin eta merke horrekin ordenantzari muzin egiten diote, aurpegia gorritu ere egin gabe. Auzotarrek badituzte arazoak, kezkak eta eztabaida gaiak... Baina nola azaldu horiek guztiak deialdirik ez badago?

Gaiak egon dira eta badaude, eta gobernu taldeak ondotxo daki hori: egin beharreko bide konponketak adostu, auzotaxiaren nondik norakoak argitu, auzoetako jaiak prestatu, aurrekontuak egiteko proposamenak jaso, behin betiko aurrekontuak azaldu, etab.

Auzo Kontseilua organo aholkularia den heinean, auzotarrei galdetu beharko litzaieke zer iritzi duten hainbat gairi buruz: 2013rako egin nahi den Naturbidea proiektuaren atalaz, auzoetako seinaletikaz, aurtengo bide konpontze programaz, bide bazterren garbiketari buruzko balorazioaz, 2013rako esleipenaz, eta beste hainbat gairi buruz... Inork ez die ez informaziorik eman, ez kontsultarik egin, ez galdetu.

Eta guk susmo txarra hartzen diogu horri. Badirudi gobernu taldeari ez zaiola larregi ardura inaktibitate egoera hau, are gehiago esango genuke; organo aholkulari hau desagertzen uzten ari diren susmoa dugu. Zertarako dira auzo alkateak? Argiak aldatu behar direla parte emateko?

Bilduko zinegotziok badakigu auzoetan dinamikak egoteak eta auzotarrekin hartu-emon zuzenak izateak herriari onurak ekartzen dizkiotela, eta gobernu taldeak, dinamika hauek egon daitezen sustatu behar du. Ez da hain zaila. Auzo alkateak eta kontseilua tresna ezin hobeak dira horretarako. Baina denok dakigu tresnak, erabili ezean, ugertu egiten direla.

Horregatik, EAJri lehenbailehen eskatzen diogu Auzo Kontseilua batu dezan, eta egiten ari ez den lanari ekin diezaion. Erraza baita promesak ereitea, baina ereindakoa loratu eta fruituak jasotzeko beharrezkoa da lurra ondo prestatzea, ongarritzea, eta noizean behin ureztatu, arnasa eman eta belar txarrak mehastea... Jorratu, lurra jorratu beharra dago.

Xabier Orbegozo (Elorrioko Bilduko zinegotzia)

> KLIK BATEAN



Txakurren gorotzen inguruko kexak, Muntsaratz auzotik

"Muntsaratzen holakoak topatzea nahiko normala da, eta nik ez dot nahi hau normaltzat hartzea", azaldu du argazki hauek Anboto astekarira bidali dituen irakurle batek. Txakurren jabeei mezua bidaltzea gura izan du: "Ardura jabeena da, ez txakurrena".

Muntsaratz (Abadiño)

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - **astekaria@anboto.org**

- Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
- Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

Datuok barik, ez da gutunik argitaratuko.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU

Aralar

Euren miseria

Oraindik "shock" egoeran nago. Horrela nabil irakurri dudanetik Durangoko EAJk aurrekontuen inguruan, euren propaganda eginez, hedabideetan esan duena. Esan dute aurrekontuen aurkezpenean, "aurreztutako dirua", 2013an bi proiektu garrantzitsuenak garatzeko erabiliko dutela, hau da, Urki-Hegoaldeko lotura eta San Faustoko zentro zibikoa. Harrigarria, benetan, saldu nahi digutena, alegia, azken urteetan egin duten kudeaketa negargarria kudeaketa eredugarritzat azaltzea.

Errealitatea beste bat da. Durangoko EAJk azken urteotan burutu dituen obra guztiak hartuta, bataz besteko %30eko gainkostua ordaindu behar izan dugu gure poltsikotik. Horixe da euren kudeaketa eredugarria; gainkostuak ordaintzea. Eta harrigarriena da 2013an egin gura dituzten "proiektu garrantzitsuak" 2005ean eta 2007an ere aipatu zituztela lehentasun moduan. Orain zergatik sinetsi behar dugu ematen diguten hitza? Argi eta garbi esan nahi dut, saldu nahi diguten kudeaketa onean ez dago horrelakorik; miseria banatzea da egin nahi dutena.

Onartzen dut kalean jendeak esaten didana: ez da momentu ona ika-mika politikoetan aritzeko. Baina azaldu behar dut gure helburua ez dela epe motzera jokatzea. Durangon eta Euskal Herrian salatu egin behar ditugu herritarrei ziria sartzeko egiten dizkiguten saiakera guztiak. Durangon eta Euskal Herrian badago alternatibarik erakundeak herriari bueltatzeko, ziria sartzeko saiakerarik egiten ez duten erakundeak eraikitzeko. Badako aukerarik miseria banatu ordez, pertsonei begira politika egiten duten erakundeak berreskuratzeko. Hain zuzen, helburua ez da aurtengo kudeaketari begira egotea, baizik eta hurrengo belaunaldiei utziko diegun Durango duina eta justuagoa izatea.

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

ABADIÑO ATXONDO BERRIZ DURANGO ELORRIO GARAI IURRETA IZURTZA MALLABIA MAÑARIA OTXANDIO ZALDIBAR

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa: 94 623 25 23
Publizitatea: 94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko martxoaren 15a
11. urtea - 493. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarrieta.
Zuzentzailea: Goiatz Etxeita.
Argazkilariak: Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

Anbotok es du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Kultura

> ANTZERKIA

I. Topaklown: clown teknika ezagutu eta estimatzeko gonbidapen zabala

Arloko profesionalen harrera oso beroa jaso du clownaren inguruko Durangoko lehenengo topaketak

> ITSASO ESTEBAN

Aurten lehenengo aldiz antolatu dute clown antzerki adierazpidearen inguruko Topaklown jaialdia, eta Durangoko San Agustin kulturguneko prentsaurrekoan aurkeztu dute. Topaketa antolatzeko lana egin duten Ganso & Cia antzerki taldeko Gorka Ganso eta San Agustin kulturguneko Arantza Arrazola kudeatzailea, Jon Kepa Garro zinegotzia, eta topaketaren barruan ikastaro bana gidatuko duten Pablo Ibarluzea eta Virginia Imaz antzezleak agertu dira topaketa aurkeztera.

Katalunia, Portugal, Italia edo Frantziatik ere etorriko dira topaketako ikastaroen hartzaileak

Jaialdiak alor bi uztartuko dituela azaldu dute antolatzaileek: clownaren inguruan diharduten profesionalen eta antzezleen formaziorako ikastaroak eskainiko dituzte, batetik; eta sortzaileen eta publikoaren arteko elkargune ere izatea nahi dute, bestetik.

Ikastaroek oso harrera beroa eduki dute: Euskal Herria, Katalunia, Portugal, Italia, edota Frantziako 60 lagunek eman dute izena ikastaroren bat egiteko. Eskarmentu eta prestigio handiko aktoreek gidatuko dituzte ikastaroak. Martxoaren 28tik 31ra, Durangon, elkarrekin biziko dira ikastaroen parte-hartzaile horiek guztiak: "Elkarrekin lo egin, bazkaldu, eta eztabaidatuko dugu", azpimarratu dute.

Topaketan parte hartzen dutenen eta Durangaldeko publikoaren hartu-emanerako, egitarau oparoa prestatu dute; bina antzerki emanaldi izango dira topaketako egun bakoitzean. Goizeko ikuskizunak doakoak izango dira, eta ordaindu beharrekoetarako bi aukera eskaini dituzte: ikuskizun guztietarako 15 euroko bonua eskuratu daiteke, edota 7 euro ordaindu ikuskizun bakoitza.

Publikoa "clown teknika ezagutzera eta estimatzera" gonbidatu du Pablo Ibarluzea Laudioko antzerkilariak.

"Elkartu ahal izatea bera itzelezko gozamena izango da", esan du, bestalde, Virginia Imaz aktore antzuolarrak. "Sasoi honetan inoiz baino gehiago, gainera, barre egiteko beharra daukagu euskaldunok", adierazi du aurkezpenean.

EGITARAUA

Andra Marian
martxoaren 23an,
12:00etatik 14:00etara. Topaklown jaialdiaren aurkezpena: Broken Brass Band, fotomatoia eta animazioa.

Udaletxeko plazan
martxoaren 23an,
18:00etan. Malas Compañias zirko taldearen *Orsai*.

San Agustin kulturgunean
martxoaren 28an,
20:30ean. Cia La Que Tu Me Haces taldea (Nafarroa).
22:00etan. Kolektivo Mostrenko taldea (Araba).

martxoaren 29an,
20:30ean. Personal Trainer y Familia taldea (Palencia).
22:00etan. Cirque De Legume taldea (Irlanda).

martxoaren 30ean,
20:30ean. Garrapete taldea (Palencia).
22:00etan. Topaklown kabaretaren emanaldia.

martxoaren 31n,
22:00etan. Inprolinpiadak 2013.

> BERTSOLARITZA

Durangaldearen eta Ipar Uriberen arteko finala

Martxoaren 22an jokatuko dute Bertsolari Gazteen BBK Txapelketaren finala, Bilboko kafe antzokian

Durangaldeko eta Ipar Uribeko taldeek jokatuko dute Bizkaiko Bertsolari Gazteen XXI. Sariketaren finala. Martxoaren 22an izango da saio hori, 19:00etan, Bilboko kafe antzokian.

Asteon, martitzenean eta eguaztenean kantatu dute gazteek txapelketaren finaulaurrekoetan; Durangoko Institutuko saioan, Arratiako taldeak baino puntu bi gehiago batu ditu Durangaldekoak. Ipar Uribek, ostera, Algortako bigarren finalaurrekoan lortu zuen finalerako txartela, Bilboaldeak baino 45 puntu gehiago batuta.

Durangaldeko sei bertsolari gaztek kantatuko dute Bilboko kafe antzokiko finalean: Garoa Angiozarrek, Iruri Altzerrekak, eta Txaber Altubek, 18 urtetik beherakoen sailean; eta Aitor Bizkarrak, Ander Gerrikaetxebarriak eta Ane Alegriak, 19 eta 24 urte bitartekoen taldean.

Guztira, Bizkaiko zazpi talde ibili dira aurtengo txapelketan.

> POESIA

Durangaldeko lau poeten errezitaldia, Abadiñon

Poemas de paz y amor liburua kaleratu berri duen Vicente Moreno abadiñarrak, eta Peru Magdalena, Oier Gonzalez, eta Begoña Eguen durangarrek errezitatuko dute poesia, martxoaren 22an, 19:30ean, Abadiñoko Errota kultur etxean.

Poesiaren Nazioarteko Egunaren harira eta liburu berria aurkezteko helburuagaz antolatu du Vicente Morenok barikuko errezitaldi hori.

Naturari buruzkoak dira *Poemas de paz y amor* liburuko olerki gehienak: Euskal Herriko paisaiek zein Morenoren jaioterriko –Soriako– paisaiek inspiraturikoak. Liburuko poemen lagin bat eskainiko du Vicente Morenok, emanaldi horretan.

> DOKUMENTALA

Bideografik ekoiztetxearen dokumentala, San Agustinen

Durangoko San Agustin kulturgunean aurkeztuko du Bideografik ekoiztetxeak, gaur, 19:30ean, *Gr99: Los colores del camino* izeneko dokumentala. Lanaren inguruko azalpenak emango dituzte egileek eta bultzatzaileek. Ezgaitasun intelektuala dutenen bizi kalitatea hobetzea helburu duen Talur elkartea da ekimenaren bultzatzailea.

Dokumentalaren protagonistak, Sobron eta Zaragoza arteko 300 kilometro oinez egin zituzten zazpi lagun dira.

San Agustingo gaurko hitzorduan, lanaren zabalkunderako beharrezko finantziazioa lortzeko martxan ipini duten kanpaina ere aurkeztuko du Bideografik taldeak.

> AURKEZPENA

Kultur aniztasunari "merezi duen lekua" emango diote Zilar Astean

Migrazioari buruzko hainbat diziplinatako ikuskizunak eta ekimenak dakartza 2013ko Zilar Asteak

> ITSASO ESTEBAN

Migrazioak gaiaren bueltakoa izango da, Durangoko Zilar Astea aurten, eta egitarau zabala aurkeztu dute herriko kulturgintzako eragileek. Durangaldeko "kultur aniztasunari merezi duen aitorpena" egitea da eragileon proposamena. Erika Uranga Plateruenekoa kudeatzaileak azaldu duenez, ekimenean parte hartzen duten Durangoko eta Iurretako ikastetxeetako ikasleek proposaturiko zazpi gaien artean aukeraturikoa da, aurten, Zilar Astearen ardatza izango den migrazioa gaia.

> Durango eta Iurretako bost ikastetxetako ikasleek martxotik dihardute migrazioaz hausnartzen

Aurreko edizioetan bezala, Durangoko eta Iurretako bost ikastetxetako Batxilergoko ikasleek martxo hasieratik dihardute migrazioaren inguruko unitate didaktikoa lantzen: Ainara Gorostizuren *Aldamenekoa* nobelaren irakurketatik abiatuta, komiki bat sortuko dute, eta San Agustin kulturgunean ikusgai ipiniko dituzte.

Bihar, Gotzon Barandiaranek gidatuko duen *Sorterritik urrun, migrazioak euskal literaturan* Literatura Eskola izango da Zilar Astearen hurrengo hitzordua. Durangoko udal liburutegian, 10:00etan hasiko da literaturaren inguruko saio hori.

Martxoaren 23ra arte, Durangaldeko hainbat diziplinatako kultur sortzaileek "euskaraz, eta Zilar Asterako propio" sortutako antzezlan, dantza ikuskizun, musika emanaldi, eta erakusketak biltzen ditu Plateruena kafe antzokiaren bueltan sorturiko egitarauak. Horren adibide dira Karrika antzerki taldeak sortu duen *Inungane, sustraiak airean*, Kriskitin dantza taldearen *Erbestea aberri*, edota Omar Acosta flautista gonbidatu berezia izango duen Jam Session musika saioa.

Martxoaren 23an, Kriskitin dantza taldearen emanaldiaren osteko *Munduko Koloreak* inprobisazio saioagaz itxiko dute Zilar Astea Plateruenean bildutako gizarte eta kultur eragileek.

EGITARAUA

Martxoaren 16an
10:00etan. Literatura Eskola, udal liburutegian.
13:00etan. Kantulagun kalez kale. Santanan hasita.
Martxoaren 21ean
20:00etan. Karrika antzerki taldearen *Inungane, sustraiak airean*, Plateruenean.
Martxoaren 22an
20:00etan. *Biutz* antzezlanaren emanaldia, San Agustin kulturgunean.
22:00etan. Durang(h)ots Jam Session, Omar Acosta flautista gonbidatu bereziagaz, Plateruenean.
Martxoaren 23an
21:00etan. *Erbestea aberri* ikuskizuna, Kriskitin dantza taldearen eskutik, Plateruenean.
22:00etan. *Munduko koloreak.* Durangoko migratzaile elkarteen eta Ullanah musika taldearen inprobisazio, Plateruenean.

'Erbestea aberri' dantza ikuskizuna sortu du Kriskitinek Zilar Asterako

Martxoaren 23an aurkeztuko du Kriskitinek migrazioari buruzko lana

Erbestea aberri ikuskizuna aurkeztuko du, martxoaren 23an, Kriskitin dantza taldeak. Zilar Astearen barruan izango da emanaldia, Plateruenean.

Egoitz Esturo dantzariak eta Inma Garrastatxu zuzendariak aurkeztu digute urtarrilean prestatzen hasi ziren ikuskizun berria: *Erbestea aberri* du izena, eta taldeko hamazortzi dantzarik jardungo dute bertan: 16 eta 50 urte bitartekoak dira dantzariak.

Ikuskizuna ikuslearen interpretaziora oso irekita dago, egileen berbetan. Ohi duten bezala, tradizioa oinarri hartuta, baina berritasuna bilatuta sortu dute: "Istorio bat asmatu, musika hautatu, eta dantza pausoak egokitzen ditugu, gero", dio Esturok.

Ikuskizun berrirako, euskal folkloretik kanpoko diziplinak baliatu dituzte. "Dantza zer edo zer transmititzeko baliatzen dugu beti, baina, beharbada, kasu honetan, istorioak ez dauka mezu hain agerikoa: honetan gehiago da geuri sorturiko galdera eta gogoetak ikusleekin konpartitzea", diote. "Jendearen bihotzetara ailegatzea" litzateke sortzaileentzako lorpenik handiena.

Migrazioari buruz hausnartu du Kriskitinek, eta denbora eta lekurik bako espazio batean kokatu du ikuskizuna: "Migratzea gatazka politikoak edo beharrizan ekonomikoak bultzatuta, behartuta, hartutako erabakia dela da egin dugun gogoeta".

Gai askoren inguruan hausnartzeko aukera ematen duelako, "oso interesgarri" deritzote Kriskitinekoek Zilar Asteari: "80ko hamarkada bizi ez zuten taldekideek, esaterako, ekimen honetan parte hartuta ezagutu zuten garai hura sakonago", dio Esturok.

Bere burua migratzailearen azalean kokatu du Kriskitinek, eta ariketa horixe proposatuko diote ikusleari ere.

Produkzio gastuak ordaindu ahal izateko 3 euroko sarrera sinbolikoa ipini diote emanaldiari.

K.Aginako

JOSE MARTIN URRUTIA, 'TXOTXE' | Karrika antzerki taldeko zuzendaria |

«Saiatu gara istorio txikiekin puzzle erraldoi bat osatzen»

'Inungane, sustraiak airean' lana estreinatuko du Karrikak, Zilar Astean

Zelan doaz antzezlanaren prestaketa lanak?
Betiko martxan: denbora beharrean! Baina egia esan, ikuskizunak hartu du forma.

Noiz hasi zineten lanean?
Udako oporren bueltan hasi zen taldea aurtengo Zilar Astearen gaiari, emigrazioari, buruz hausnartzen, eta galderak egiten, eta gai horrek bakoitzari zer eragiten dion aztertzen.

Zer galdera sortu ziren?
Prozesuaren parte horretan ez nintzen egon, baina, etorkinen azalean ipintzea izan zen ariketa. Sorterritik irteteko arrazoiak zeintzuk diren, zer sentitzen duzun... Oso ikuspuntu poliedriko eta zabaletik begiratu gura izan diogu emigrazioaren gaiari, eta geure burua tesitura horretan ipini.

> “Sorkuntzaren ikuspuntutik urtero horrelako lan bat plazaratzea erronka oso handia da”

Sorkuntza prozesuagaz, forma zehatza hartu dute gogoeta horiek denek.
Bai, horretan jardun dugu: ideia horiek gorpuztu eta hitz eta kolore zelan bilakatu pentsatzen, eta ondoren, ideiak gauzatzen.

Zer ideia edo hari nagusi dauka antzezlanak?
Gaiak milaka norabide dauzkala konturatzetik sortu da ideia nagusia: saiatu gara hari horiek bakoitzak bere bidea hartu dezan libre uzten, batetik, eta denekin joskura egiten, gero. Saiatu gara istorio txikiekin puzzle erraldoi bat osatzen.

Ezagutzen ez ditugun errealitateak aurreiritziz epaitzen ditugu sarri. Kontrara, emigrazioaren aniztasuna gura izan duzue erakutsi.
Bai. Horretarako, hainbat etorkinen testigantzak batuko ditugu ikuskizunaren hasieran. Izan ere, hainbat ezaugarri komunean izan arren, etorkin bakoitzak sentipen eta bizipen desberdinak ditu.

Zelan landu dituzue etorkinen testigantzak?
Gertu daukan etorkin bati galdeketatxo bat egin dio taldekide bakoitzak, eta testigantza horiekin osatu dugu mosaikoa. Ikuskizunean, audio euskarrian erabiliko ditugu testigantza horiek.

Zer adierazpide baliatu duzue ikuskizunean?
Koreografia, testua... askotariko baliabideak darabilzkigu ikuskizuna eraikitzeko.

Bisualki, zer efektu gura izan duzue lortu lan honetan?
Koloreek eman dezaketen informazioa baliatu gura izan dugu, esaterako. Elementu plastikoekin eta argiztapenarekin ere jokatu gura dugu eszenan.

Berezia izan da antzezlan honen sorkuntza prozesua?
Modu kooperatiboagoan egin dugu, beharbada, lan. Ideia asko egon da mahai gainean. Testuaren zati bat neuk, eta beste bat Eneko Sagardoyk egin arren, taldelanean sortu dugu.

Taldeko zenbat lagunek parte hartuko dute ikuskizunean?
Zazpi aktorek eta Plateruenekotekniko bik jardungo dute.

Zilar Astearen lau edizioetan parte hartu duzue, ezta?
Bai, izan ere, oso interesante deritzogu eragile sozial eta kulturalok gai bat hartu eta denon artean jorratzeari. Sorkuntzaren ikuspuntutik, bestalde, urtero horrelako lan bat plazaratzea erronka handia da guretzat.

K.Aginako

GEURE DURANGALDEA

AINHOA URIEN
Ikaslea

Badaezpada

Kapitalismoak bihurtu ditu benetako erantzule ez direnak ikasleen pasibotasunaren errudun. Irakasleak. Hezkuntza da oinarria, eta ixilik egoten irakasten digute, ez baitituzte iraultzaile edo pentsatzaileak nahi, muga bateraino pentsatzen dutenak baino: kurtsoko programa da sortzearen kontinentea, gure itsasertzetik are gehiago urruntzen duen tsunamia.

Orokortzea ez da zilegi baina uste al duzu zure irakasleek iraultzaile, pentsatzaile edo sortzaile izan zaitezen interesik badutela? Begiratu nork egin dituen zabalik dituzun liburuak, eta Errusian Stalinen diktadura baino ez dizute aipatuko, ez dizkizute Leninen ideiak erakutsiko, badaezpada. Ikasi komunismo, sozialismo edo anarkismo kontzeptuak, baina ez ezazu jakin zer diren. Horrela zikindu dira ideia horien benetako funtsak, pegata batzuk jarri eta kokaina sartu arren ez baita jendea anarkista, askok hori haren kontra egiteko aitzakiatzat hartzen badu ere.

Ez dut uste irakasleen errua denik pasibotasun hau, inkontzienteki eta inertziaz egiten dutela pentsatu nahi dut; baina konplize ere badira neurri batean. Horregatik ez dugu askok gelara joatea gogo onez hartzen, eta nahiago dugu aditzak ikasi baino mugarik gabe pentsatu, “si vis pacem para bellum” zer den esan diezagutela. Sortzea delitu soziala da, eta mehatxuekin kontrolatzen gaituzte, badaezpada ez dezagun borroka egin, eta sinetsi dezagun zapalduta bizi arren, azken orduan eskerrak emango ditugula.

Aurrera segi beharko dugu, oraindik nork hil duen argi ez dagoenak esan zuen bezala: “iraultza baketsuari bidea ixten dionak zabaltzen dio bidea iraultza bortitzari”. Baina arraro begiratu zaitzatela nahi ez baduzu, ez berpiztu eraildako duintasuna, badaezpada.

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

Eitua industrigunea, 71C • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • 94 682 45 50 • alkimax@alkimax.net

JASOGAILUAK

PRODUKTU BERRIAK

www. alkimax.net

Kirola

NAROA MARTINEZ | 15 urte, Durango |

"Zilarra sorpresa izan da, ez nuen finalerako sailkatzerik ere espero"

Bidezabalgo Naroa Martinezek zilarrezko domina irabazi du pista estaliko Espainiako txapelketan

> JOSEBA DERTEANO

Valentzian jokatutako kadete mailako txapelketan Naroa Martinezek (Durango, 15 urte) zilarrezko domina irabazi du 600 metrotan. Horrez gainera, finalerdietan Euskadiko errekor berria ezarri du.

Zenbat atleta joan zineten Bidezabaldik?
Neu izan nintzen Bidezabalgo atleta bakarra. Isidoro Hernandez entrenatzaileagaz, Aitor Casal Bidezabalgo presidenteagaz eta familiagaz joan nintzen.

Finalerako sailkatu eta zilarrezko domina irabazi zenuen. Espero zenuen horrelako emaitzarik?
Finalerako sailkatzerik ere ez nuen espero, beraz, zilarra irabaztea sorpresa izan zen, oso sorpresa pozgarria.

Lehenengo finalerako sailkapen proba izan zenuen.
Bai. Lasterketa azkarra izan zen hasiera-hasieratik. Lehenengo ipini nintzen, eta neuk markatu nuen erritmoa. Entrenatzailearen eta bion artean hartutako erabakia izan zen. Nahiago dut horrela egin, erosoago sentitzen naiz. Gainera, garrantzitsua zen denbora ona egitea. Izan ere, lehenengo biak zuzenean sailkatzen ziren, baina txanda denetako denborak kontuan hartuta sailkatzen ziren beste lau. Azkenean, lehenengo sailkatu nintzen.

Finalerdi hori gogoan izateko beste arrazoi bat ere baduzu.
Bai. Kadeteen mailan Euskadiko marka berria ezarri nuen (1.37.66). Helmugara heldu nintzenean, ez nuen ezer berezirik lortu izanaren sentzaziorik. Entrenatzaileak esan zidan errekorrarena. Ez nuen espero. Pista estaliko nire markarik onena 1.43 inguruan zegoen. Donostiako Anoetan lortu nuen. Aire librean, berriz, 1.38 zen markarik onena. 1.37ra sekula jaitsi gabe nengoen.

Finalean ere zeuk markatu zenuen erritmoa?
Ez. Nahiago izan nuen apur bat atzerago ibili. Kataluniako korrikalari batek erritmo ona zeramala jabetu eta bere atzean ipini nintzen. Laugarren nindoan. Azken metroetako esprintean hirugarren tokian helmugaratzea lortu nuen. Ondoren, bigarrena deskalifikatu egin zutela esan zidaten, eta zilarrezko domina irabazi nuela. Ezin nuen sinistu, asko poztu nintzen.

Zelakoak izan ziren lasterketa hasi aurreko uneak?
Finalerdia arratsaldez lehiatu eta hurrengo goizean izan zen finala. Gauez, nik uste baino hobeto lo egin nuen. Finala hurreratu ahala, hasi nintzen urduritzen. Lasterketa hasi aurretxoan, oso nerbiosa nengoen. Baina lasterketa hasi zenean, lasaitu egin nintzen.

Fray Juan de Zumarraga institutuan ikasten duzu. Zer esan dizute lagunek?
Lagun eta ezagunek zoriondu egin naute, eta berdin jarraitzeko esan didate.

15 urtegaz, oraindik zure mugak ezagutzen zabiltza. Beste distantziarik probatu gurako zenuke?
Beno, 300 eta 1.000 metroak ere probatu ditut, baita abiadura probak ere. Baina orain, 600ean zentratuta nabil. Uste dut nire dohainei ondoen egokitzen zaien distantzia dela.

Zer dohain behar ditu 600 metroko korrikalari on batek?
Ez da distantzia luzea, eta abiadura izan behar du. Era berean, erritmo konstantea mantentzeko ahalmena izan behar du. Berez, ez da iraupen proba bat, baina erritmoari eusteko kapaz ez dena, alferrik dabil.

> *"Finalerdietako lasterketa azkarra izan zen. Lehenengo ipini nintzen, eta neuk ezarri nuen erritmoa"*

> *"Uste dut barru-barruan beti sentitu izan dudala atletismoa zela nire kirol kuttuna"*

Zer hobetu behar duzu atleta azkarragoa izateko?
Irteerak hobetu behar ditut. Kosta egiten zait berotzea, eta lasterketan behar moduan sartzea.

Eta zeintzuk dira zure dohainik onenak?
Azken esprinta, esango nuke. Korrikalari batek behar duen beste dohain bat da lekua hartzeko abilidadea. Barrualdea edo kanpoaldea hartzea, komeni zaizun korrikalariaren atzean kokatzea... Denek ez dute garbi jokatzen. Ukondoak dantzan ibiltzen dira sarritan.

Noiz hasi zinen Bidezabalen?
Orain lau urte hasi nintzen Bidezabalen. Txiki-txikitatik gustatu izan zait arineketan egitea. Txikitatik gimnasia erritmikoa egin izan dut lau-bost urtez. Gustatzen zait kirol hori ere, baina gurago dut atletismoa. Beraz, Bidezabalera batu nintzenean, gimnasia erritmikoa utzi nuen. Uste dut, barru-barruan beti sentitu dudala atletismoa zela nire kirol kuttuna.

Zeintzuk dira zure hurrengo hitzorduak?
Asteburuan, selekzioen arteko Espainiako kros txapelketan lehiatuko naiz, Avilan. Euskadiko selekzioagaz ariko naiz.

Ba al duzu gustuko atletaren bat?
Ez, ez dut eredu moduan hartzen dudan atletarik. Marta Dominguez gustatu izan zait, baina berez, ez dut eredu lez hartzen dudan inor.

> FUTBOLA

Derbi batek bolada onak eta txarrak parekatu egiten dituelako

Elorrio bolada onean eta Iurretako txarrean dauden arren, "derbiak dena parekatzen" duela diote

Lehenengo itzulian jokatutako derbiko une bat. Zaloa Fuertes

> JOSEBA DERTEANO

Erabat kontrako joerekin helduko dira asteburuko derbira Iurretako eta Elorrio. Lehenengoa, bolada txarra pasatzen ari da, azken hamar partiduetan berdinketa bakarra lortuta. Elorriok, ostera, azken bost partiduetatik lau irabazi ditu. Hala eta guztiz ere, derbiak baditu indarrak parekatzeko ezaugarri batzuk. "Derbia derbia da", dio Iurretakoko entrenatzaile Iker Ojedak, "eta jokalariak motibazioz beteta daude". Elorrioko entrenatzaile Gontzal Arana ere ez da fidatzen: "Ez dut uste Iurretakokoei bolada txarrak eragingo dienik. Derbi batean, bataren eta bestearen egoerak ez du eragiten. Gu, behinik behin, oso motibatuta gaude".

Iurretako denboraldiko unerik txarrenean dago. Talde laburra dute, eta justu-justu ailegatu dira ligako azken txanpara. Guztira, 14 jokalari dituzte, eta partidu batzuetara 11 edo 12gaz ere joan izan dira: "Batez ere, bigarren zatietan igartzen dugu. Ez da kalitate kontua. Jokalari onak dira denak, eta badakite jokatzen. Taldeagaz pozik nago".

Hutsune nagusietakoa atean dago. Atezain bakarra dute, eta ezin izan du hiru bat partidutara joan. Ondorioz, taldeko goleatzaile nagusia den Deyanirak (13 gol) jokatuko du atezain. "Ondo moldatzen" dela dio Ojedak, baina normala den moduan, ez ditu atezain baten ezaugarriak.

Elorrio ere atezain barik

Iurretakok legez, Elorriok ere badaki zen den atezain barik egotea. Atezain bi dituzte, baina hainbat partidutan biak lesionatuta egon dira. Esate baterako, orain aste bi 6-1 galdu zuten Mungiaren aurka, eta partiduko zati bakoitzean zelaiko jokalari bik jantzi behar izan zituzten eskularruak euren atea defendatzeko.

Elorrioren aurtengo beste ezaugarri bat da 21 partidutan ez dutela bakar bat berdindu: 13 irabazi eta 8 galdu dituzte.

Derbirako ez dute ezusteko bajarik. Orain lau hile tibia eta peronea apurtu zituen eta orain hile bat lotailu-haustura izan zuen jokalari bana kenduta, gainerako 18ak jokatzeko prest daude.

> AUTOKROSA

Urangari bikain erantzun dio Citroen Saxo berriak

Espainiako txapelketako lehen proba irabazi du

Aragoiko Motorland zirkuituan jokatutako Espainiako Autokros Txapelketako lehen proba irabazi egin du Arkaitz Urangak. Iaz IIA mailan irabazita, aurten maila bat gorago lehiatzea erabaki du. Citroen Saxo auto berriari 110 kilo gehitu behar izan dizkio federazioaren eskakizunetara egokitzeko. Hala ere, autoak bikain erantzun dio, eta jaun eta jabe izan zen Aragoin. Lehen itzuli bietan ihes egin eta ondoren, aldeari eutsi egin zion. Gainera, txapelketa irabazteko arerio nagusi izan daitekeen David Urbanek zortzigarren amaitu zuen. Bigarren proba apirilaren 15ean izango du Lleidako zirkuituan.

> SOKATIRA

Bihar 560 kiloko finala jokatuko dute Abadiñon

Denboraldiko azken txapelketa izango da

Goma gaineko denboraldiari amaiera emateko, 560 kilora arteko finala jokatuko dute zapatuan, 17:00etan, Abadiñoko probalekuan. Finaleko zortzi taldeen artean Sokarri eta Ñapurrak izango ditu arerio nagusiak. Emakumeen ligako 500 kilora arteko txapelketa ere jokatuko dute.

Zortziko txapelketan, Abadiñok 680 eta 640 kilora arteko txapelak jantzi ditu. Hiru urte zeramatzan 640koan irabazi barik. 600 kilora artekoan, ostera, Ibarra nagusitu zen eta bigarren sailkatu zen Abadiño. Lauko txapelketan 320 kilokoa irabazi du Abadiñok; 300ekoan Sokarri nagusitu zen.

ADITUAREN TXOKOA

Eneritz Iturriaga

Txirrindulari ohia

Ikuskizunaren zain

Zer edukiko dute Euskal Herriko mendiek, urtetik urtera gure Emakumeen Bira gogorrago egiteko. Mendiak gora eta mendiak behera, itsaso aldetik eta berriz mendira, bide estu guztietatik, gure Euskal Herri maitearen alderdi zoragarri guztiak ezagutzeko prest.

Bai, ekainean izango da berriro,eta orain dela 16 urte bezala, errepidera joango naiz, neska eta lagun guztiei oihu batzuk egitera! Seguruenik inbidia apur bat pasako dut, nahiz eta 'eskalatzaileak' ez garenok asko sufritu izan dugun malda hauetan gora. Betiko lez, gure Agustinek igoera gogorragoak eta errepide berriak sartu ditu, ikuskizunaren bila, nahiz eta *kabreo* txikiak hartu, Birako egun berdinetan Ameriketan beste karrera batzuk jarri dituztelako. Baina hala eta guztiz ere, "onenak" hona etorriko direna ziur nago, (munduko karrera guztiak lehiatu ditut, eta azkenean, berton, etxean, aurkitu dut antolakuntza mailarik onena, eta zaleen berotasuna gehien sentitzen den lekua ere bada) eta euren onena ematera eta maillot hori desiratuaren gosez etorriko dira.

Krisiari lepoa emanez eta irribarrez, berriro Agustinek lana egiteko gogoa hartuko duelakoan nago. Ez baita erraza, munduko onenak ekarri eta karrera eder hau antolatzea! Beraz, espero dut,kirola maite dugunok, berton egongo garela ikuskizunaren zain!

CENTRAL FORESTAL
Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura
Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 94 620 51 87 - Faxa: 94 620 51 94

> FUTBOLA

Herrerak eta Amorebietak parte hartuko dute Iurretako futbol kanpusean

Aurten sortu den Iurretako Gertasport kirol klubak antolatuko du, apirilaren 2tik 5era

> JOSEBA DERTEANO

Gertasport kirol klubak 6 eta 12 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako futbol kanpusa antolatuko du apirilaren 2tik 5era, Iurretako Larrakozelai futbol zelaian. Athletic Fundazioaren aholkularitza izan dute ekimena diseinatzeko, eta Athletic Club taldeko jokalari bi ere etorriko dira: Ander Herrera eta Fernando Amorebieta.

Getasport elkartea urtarrilean sortu zuten Iurretako futbol taldean dabiltzan kide bik:

Athletic Fundazioaren aholkularitza izan dute apirileko kanpusa diseinatzerako orduan

Jon Gurutz Vazquez eta Mikel Aranguren dira ekimeneko sustatzaileak.

Jon Gurutz Vazquez entrenatzaileak eta Mikel Aranguren taldeko kapitainak. 'Etorkizun kanpusa' izena jarri dioten apirilekoa da euren lehenengo ekimena. Kanpusari izaera ludikoa eman gura izan diotela adierazi du Arangurenek: "Tailerrak, ariketak… denetarik izango dugu. Baina gure helburu nagusia da gaztetxoak dibertitu daitezela. Etxera joan eta hurrengo egunean bueltatzeko gogoa izan dezatela. Futbolaren bidez, elkar ezagutu dezaten nahi dugu, euren arteko hartuemanak sustatuz. Kanpusa ez dugu konpetizio hutsera bideratuko". Ekimena aurrera ateratzeko "esperientzia handiko monitoreak eta futbol entrenatzaileak" dituztela adierazi du Arangurenek. Kanpusaren ordutegia honako hau izango da: 09:30etik 14:00etara. Parte-hartzaile guztientzako sari bat egongo dela adierazi dute antolatzaileek, eta azken egunean diploma bat jasoko dute. Izena emateko epea martxoaren 24an amaitzen da, eta 90 euro balio du. Seme-alaba bat baino gehiago duten gurasoei %10eko deskontua (bigarrenetik aurrera) egingo diete. Izen-ematea honako webgune honetan egin daiteke: *www.gertasport.com*.

> ARETO FUTBOLA

Geu Be areto futbol taldeko jokalariak, Durangon jokatu zen jardunaldian.

Geu Be taldea lider dago, bigarren jardunaldiaren ostean

Durangon partidu denak irabazi zituzten

Kirol Egokituko Euskal Federazioak, tokian tokiko elkarteen laguntzagaz, adimen desgaitasuna duten lagunei zuzendutako lehenengo areto futbol txapelketa antolatu du. Lehian dabiltzan hiru taldeetako bat Durangaldeko Geu Be elkartekoa da. Joan zen asteburuan, Durangon lehiatutako bigarren jardunaldian Geu Bek partidu denak irabazi zituen. Orain, sailkapeneko liderrak dira, Apdema taldeagaz berdinduta.

> DUATLOIA

Frades Euskadiko txapeldun geratu da hirugarrenez

Durangoko duatloian jaun eta jabe izan zen

Ia 300 parte-hartzaile lehiatu ziren joan zen zapatuan, Durangoko VII. duatloian. Distantzia laburreko Euskadiko txapelketa zegoen jokoan, eta emakumeetan, Gurutze Frades iurretarra (MugarraTT) jaun eta jabe izan zen, eta ia bost minutuko aldea atera zion bigarren sailkatuari. Ondorioz, hirugarren biderrez irabazi du Euskadiko txapelketa. Gizonetan, berriz, Iurgi Etxeandiak irabazi zuen.

Guruzte Frades podiumean, Euskadiko txapelketa irabazi ondoren. K.Aginako

AGENDA

> FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Durangoko Kulturala - Alaves B
· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran

OHOREZKO MAILA

Elorrio - Alaves B
· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

Abadiño - Berriz
· Zapatuan, 16:45ean, Astolan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Zaldua B - Iturrigorri B
· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian

Iurretako B - Sondika B
· Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelain

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

Iurretako - Elorrio
· Zapatuan, 16:00etan, Larrakozelain

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Mallabia - Goierri
· Domekan, 17:00etan, Zaldibarko kiroldegian

EUSKAL LIGA

Sasikoa Durango - Kukuiaga Etxebarri
· Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

MAILA GORENA

Presion Break - Mamarigako
· Zapatuan, 17:15ean, Berrizburun

LEHENENGO ERREGIONALA

Gu Lagunak - Gernika
· Zapatuan, 15:30ean, Landako kiroldegian

Elorrioko B - Dantzari
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Elorrioko C - Soloarte B
· Zapatuan, 15:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

Mendibeltz - Betiortziri
· Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian

> SASKIBALOIA

LEHENENGO MAILA (emakumeak)

Tabirako Baque - Burlada
· Zapatuan, 20:30ean, Landako kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA

Anbotopeko - Txiki Bilvending
· Zapatuan, 18:00etan, Tabirako kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Julza-Zaldua - Mungialde
· Barikuan, 20:00etan, Zaldibarko kiroldegian

> PILOTA

BIHARKO IZARRAK

- Uriona-Perez / Agirre-Lasa

- Doronsoro-Irusta / Artola-Etxamendi

· Martxoaren 21ean, 21:15ean, Mallabiko pilotalekuan

Aisialdia

> MENDI IBILBIDEAK

Durango MTB

Neberondora bizikletaz joateko ibilibidea zailtasun handirik bakoa da.



Neberondora buelta bizikletaz egiteko ibilbidea

Mugarra bertatik bertara ikusteko aukera ematen du ibilbideak; laburra eta erraza da, ordu eta erdi inguruan egiteko modukoa

Neberondora osteratxoa egin eta Mugarra aldera hurreratzeko aukera ematen du ibilbide honek. Laburra izan arren, metro asko igotzen dira, eta horrek ikuspegi ederra bistaratzea ahalbidetzen du. Durangon, Aramotz auzotik irten eta Iurretako Orozketa auzorantz joatea da lehenengo urratsa. Hiru kilometro osatu ostean, basoko pista bat hartu beharko du txirrindulariak. Hortik, Neberondora doan porlanezko pista bat hartu beharko da lasterrera. Bidegurutze bat aurkitu eta eskumara hartu beharko da, gorantz. 400 metro bete eta Landederreko aisialdi gunera ailegatuko da bizikletaria. Hortik gora jarraitu eta aldats gogorra agertuko da. Harrizko pista batetik jarraituta, Neberondo izango da hurrengo tarteko helmuga. Antzinako elurtegia ikusi eta atseden txiki bat hartzeko ingurune aproposa da.

Neberondotik jaisteko fasean sartuko da txirrindularia. Merenderoaren atzean dagoen bidexka hartuko du lehenik, eta porlanezko bide bat gero, Izurtzako Santa Ageda ermitara heldu arte. Herrigunera jaitsi, eta Durangorantza joan beharko da ibilbidea amaitzeko.

ZER IKUSI

Landederra

Santa Ageda

DISTANTZIA	IRAUPENA	IGOERA METATUA	ZAILTASUNA
13 km	1 ordu 35 min	406 m	Erraza

berrizko UDALA
Garaiko Udala
IURRETAKO ELIZATEKO UDALA
Mallabiko Udala
Otxandioko Udala
Zaldibarko Udala
durango TURISMO
Fray Juan Zumarraga-Durango institutua Durango

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrak. Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com-en eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Pisua salgai edo alokairuan probalekuan; 3 logela, 3 balkoi, sukalde-jantokia, egongela handia, ganbara.Tel.: 615-711 2 40.

Abadiño. Matiena auzoan. Bizitzen sartzeko moduan. Guztiz berriztatuta eta altzariz jantzia. 3 logela, igogailua. Prezioa: 199.000 euro. Tel.: 688-861 878.

Abadiño. Pisua salgai/alokairuan Muntsaratzen. Sukalde-egongela, 3 logela, balkoi handia. Garajea eta ganbara. Tel.: 94-681 68 91.

Berriz. Pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Tel: 647-777 392.

Durango. Pisua salgai erdigunean (merkatu plazaren ondo-ondoan). Logela bi. Sukaldea eta egongela, bat eginda. Trastelekua. Kontsumo baxuko berogailua. 63 metro karratu inguru. Erreformekin. 130.000 euro Tel.: 695-702 461.

Eibar. Etxea salgai. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Tel.: 94-655 05 53

Eibar. Pisua salgai Arragueta kalean. Eraikitako 75m2 ditu. 3 logela, komun bat, sukaldea, egongela, despentsa eta bi balkoi. 656-786 097.

Elorrio. Estreinatu gabeko etxe berria salgai. 2 bainugela, 3 logela, sukalde ekipatua eta 8 m2-ko trastelekua. 210.000 euro. 634-457 201.

Iurreta. Pisu bat salgai Arriaundin. 66.000 euro. Tel.: 685-72 80 42.

Iurreta. Maspe kalean, 3 logelako pisua salgai. Tel.: 633-23 38 48.

Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela haundi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 112m2 azalera eraikituak. Tel.: 695-77 31 41

Zaldibar. Pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea biltegiarekin eta balkoia. Altzariz hornitua. 697-28 59 48.

ERRENTAN EMAN

Durango. Landako etorbidean, logelak alokagai. Tel.: 607-68 64 02.

Durango. Pisu bat alokagai. 2 logela, 2 komun eta 90 m2-ko terraza. 637-41 64 38.

Elorrio. Apartamentua alokagai herri erdian. Logela bat, eguzkitsua, bizitzen sartzeko prest. Tel.: 94-682 04 38.

Elorrio. Estreinatu gabeko etxe berria alokagai. Bi bainugela, hiru logela, sukalde ekipatua eta 8 m2-ko trastelekua. Prezioa 650 euro Tel.: 634-45 72 01.

ERRENTAN HARTU

Iurreta. Baserria alokatu edo erosiko genuke, lur sailekin. Tel.: 647-44 40 57.

Durangaldea. Pisu txikia alokatuko nuke. 500 euro inguruan. Tel.: 665-70 34 08.

OPORRETAKO ETXEBIZITZAK

SALDU

Bastida. Pisua saldu edo egunetarako alokatu egiten da, Bastidan (arabar errioxa). Erdialdean. 106m2koa eta 3 logela, 2 bainu, sukaldea eta saloia dauka. 600-463 276.

ERRENTAN EMAN

Santo domingo de la calzada (Errioxa). Pisu berria alokatzen da. Denboraldietarako. 657-772 613

Bastida. Oporretako pisua alokatzen dut piszinarekin. Torre - otxandi urbanizazio pribatuan. 2 logela, bainugela, sukaldea eta egongela, guztiz apainduta. Tel.: 620629245

PISUA KONPARTITU

PISUKIDE BILA

Abadiño. Logela bat alokagai Muntsaratz auzoan. Komun pribatua, argitsua eta oso merke. Tel.: 653-71 24 67.

Berriz. Logela bat alokagai. Erdi-erdian, tren geltokitik eta autobus paradatik minutu batera. Tel.: 615- 75 21 36.

Bilbo. 2 neska euskaldun pisukide euskaldun langile baten bila dabiltza. Etxea handia da: 3 logela, bi komun, sukaldea, egongela eta balkoia. Etxean sartzeko aukera apirilaren 1etik aurrera. 400 euro. Tel.: 659-124 911 (Janire)

Durango. Logela bat alokagai, Ibaizabal auzoan. Komun pribatuarekin.652-86 57 80.

LOKALAK

SALDU

Gasteiz. Azken erabilera: tailer mekanikoa. Garbitzeko, engrasatzeko eta IBI lizentzia ditu. Bulegoko altzariak eta garajeko atea. Portero automatikoa eta alarma. Alokatzea ere posible da: 800euro/hil. 665757807

GARAJE / TRASTERO

SALDU

Durango. Auto birako garaje-plaza itxia salgai Montevideo kalean. 670-80 92 25.

Elorrio. Berrio-Otxoa kalean garaje itxia saltzen da. Tel.: 658-75 92 64.

Elorrio. Berrio-Otxoa kalean, garaje itxia salgai. 17.000 euro. Tel.: 634-45 72 01.

Elorrio. Garaje itxia salgai erdialdean. 660-45 87 56.

LURSAILAK

SALDU

Bolibar . 4000m2-ko lursail bat salgai.660-35 80 67

Bernedo. Lursail eraikigarria Urturin salgai dago. Gasteizetik 40km-tara dago, eta izkiko golfetik 3minututara baino ez. 308m2 eraikitzea posible da. 665757807

GAINERAKOAK

ERRENTAN EMAN

Abadiã'o. Muntsaratz. Logela alokagai. Neska euskalduna gurago.676-98 33 06.

Teknologia

GAINERAKOAK

EMAN

Bidali zure ordenagailua Peru eta Boliviara. Zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu eta Kainaberaren bitartez bialduko dugu eskoletara. 655-71 76 66.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

OSTALARITZA

Durangaldea. Neska gaztea denda eta tabernatan lan egiteko prest. 600-66 64 17.

Durangaldea. Zaintzan, garbiketan edo sukaldari laguntzaile lez aritzeko lan bila Tel.: 631-03 48 12.

ETXEKO LANAK

Durangaldea. Nagusiak zaintzeko, garbiketarako, sukaldari laguntzaile... lan bila. Tel.: 686-19 00 24.

Durangaldea. Nagusiak zaintzeko, garbitzaile, sukaldari laguntzaile ... lan bila. Tel.: 636-44 59 01.

Durangaldea. Etxeko lanak egin, nagusiak zaindu, garbiketan edosukaldari laguntzaile egiteko. 680-54 48 62.

Durangaldea. Nagusiak zaintzeko, zerbitzari, sukalde laguntzaile edo etxeko lanetan aritzeko. 602-65 39 64.

Durangaldea. Bikote bat lan bila. Nagusiak zaintzen zein etxeko lanetan. Tel.: 697-66 48 18 // 659-16 93 77

Durangaldea. Pertsona nagusien zaintzan, sukaldeko laguntzaile edo garbiketan orduka. Tel.: 608-65 90 55

Durangaldea. Abadinoko 33 urteko neska euskalduna etxeak garbitzeko, plantxa egiteko edo zainketarako prest. Tel: 658-73 80 48.

Durangaldea. Zaintzan edo etxeko lanak egiteko lan bila. Tel.: 608-27 18 73.

Durangaldea. Zaintzan edo garbiketan aritzeko prest. 30 urteko neska. 697-93 85 65.

Durangaldea. Etxeko lanak egiteko lan bila. 24 orduz, edo orduka.Tel.: 651-34 12 38.

Durangaldea. Zaintzan edo garbiketan lan bila. Tel.: 648-20 03 70.

Durangaldea. Umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketan aritzeko.632-40 16 40.

Durangaldea. Nagusiak zaintzen edo garbiketan. Tel.: 650-61 01 94.

Durangaldea. Garbiketan zein zaintzan lan egiteko prest.Tel.: 632-72 43 23.

Durangaldea. Etxeko lanak egiteko prest. 24 orduz edo egunez. Tel.: 659-16 93 77.

Durangaldea. Zaintzan, etxeko lanak egiteko edo garbiketan aritzeko prest. Tel.: 638-72 64 34.

Durangaldea. Garbiketan zein pertsona nagusien zaintzan lan bila. 616-32 73 32.

Durangaldea. Zaintzan edo etxeko lanak egiteko lan bila. Tel.: 620-16 14 96.

PERTSONAK ZAINDU

Elorrio. Haurrak zaindu eta eskolako lanekin laguntzeko prest. Haur hezkuntza eta hezkuntza berezia eginak ditut. Tel.: 688 64 06 04

Lemoa. Pertsona bereziak, gaixoak, pertsona helduak etab, ospitaleetan zaintzeko prest. Soziosanitaria titulua, Tel.:656719281(Pili)

Durangaldea. Zaintzan zein garbiketan aritzeko prest. Tel.: 631-26 28 68.

Durangaldea. Nagusiak edo umeak zaintzeko lan bila nabil. Tel.: 632-32 07 27.

Durangaldea. Umeak zaintzeko lan bila. 24 orduz edo egunez. Tel.: 629-18 02 71.

Durangaldea. Asteburu, gauez zein orduka nagusiak zaintzeko. 634-00 82 22.

Durangaldea. Nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. 673-68 97 69.

Durangaldea. Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Tel.: 662-36 41 67.

Durangaldea. Nagusiak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila. 697-12 64 38.

Durangaldea. Zaintzan lan bila nabil. 24 orduz, egunez edo orduka. 602-14 79 35.

Durangaldea. Nagusien zaintzan lan bila. Arratsaldetan, gauetan eta asteburuetan. Tel.: 618-46 00 07.

Durangaldea. Gazte arduratsua nagusiak zaintzeko lan bila. Tel.: 638-32 03 45.

IRAKASKUNTZA

Durango. Klase partikularrak , ikas teknikak: erdi mailako eta goi mailako prestakuntza zikloak ; lh, dbh eta batxilergoa. 656 79 15 99.

